



GARCÍA ABAD, R.; RUZAFÁ ORTEGA, R.
Mujeres y niños en las minas de Vizcaya=Emakumeak eta umeak Bizkaiko meategietan

Bilbao: Ediciones Beta III Milenio, 2010.
 175 or. : ir. ; 24 cm.
 ISBN: 978-84-92629-22-0

Liburuxka honetan XIX.mende amaierako zein XX. mende hasierako Bizkaiko meatze-jardueran emakumeak zein umeak burututako lan desberdinen berri ematen da. Lanaren ekarririk interresgarriena emakumeen zein umeen presentzia meatze-jardueran egiaztatzeari eta partaidetza mota erreparatzeari deritzogu; batik bat, XIX. mende amaierako azken bi hamarkadatan, non aipatu jarduerak berebiziko garrantzia izan baitzuen Bizkaiko industrializazio prozesuaren hasieran zein garapenean, eta, beraz, Bizkaiko gizarte industrial berriaren sorreran. Halaber, gure iritziz, lan honek ekarri esanguratsua egiten dio ikerketa historikoari, duela gutxira arte emakumeak ez baitziren historiaren subjektu gisa ikusiak izaten.

Ikerketa-lan honetan bi egileen espezializazio arloak uztarturik ageri dira, demografia historikoa eta historia soziala; eta, baturik aurkitzen ditugu ere espezializazio bakoitzari dagozkien kezka eta metodologiak. Horrela, lana burutzeko erabilitako iturriak oso desberdinak izan dira. Batetik, meatze-eremuko lau udalerrien biztanleen erroldak eta, bestetik iturri kualitatiboak, artxibo, hemerrotekak, batik bat, eta bai ahozko iturriak ere. Lehenengoari dagokionez, hautatutako lau udalerririk honako hauek izan dira: San Salvador del Valle (1877, 1888, 1920, 1930, 1960 eta 1970) Abanto-Zierbana (1889, 1900 eta 1930), Ortuella (1890, 1910, 1924) eta Galdames (1890 eta 1935). Erroldako datu horiek lagin eran landuak izan dira bi denbora tarte desberdinetan oinarriturik, denbora-tarte horien hauetaren atzean bi gertaera historiko esanguratsuak aurkitzen ditugu, lehenengoa, meatze-ustiapenaren goraldi handiagoaren unea 1880-1890 urte bitartean gertatutakoa, Bilboko itsasadarraren garapen hasierarekin zein inmigrazioa lotutako giza kapitalaren garapenarekin batera; eta, bigarrena, industrializazioaren finkatze-aroa eta, beraz, gizarte industrial kapitalista berriaren agerpena 1920-1935 urteak.

Bigarrenei dagokionez, alegia iturri kualitatiboek dagokionez, garaiko ideologia nagusiaren zein meatze-eremuaren bizitza sozialaren berri izateko erabiliak izan dira; goian esan bezala, gehien bat, artxibo eta hemerrotekan aurkitutako dokumentuak aztertuak izan dira eta bai zenbait autore klasikoren argitalpenak ere. Ikerlarien aburuz, ahozko iturriek meatze-errealitate osoaren ezagutzatik gertu jarri gaituzte.

Egileak ikerketari ekiteko Bizkaiko meatze-udalerririk nagusien demografia-analisitik abiatu dira, analisi hori testuinguru zabal batean kokatuz. Horrela, industria iraultzaren has-tapenetan meatze-eremuak izandako garrantzia azpimarratzeko gogoratzen digute nola industria iraultzaren goraldiaren erdi-erdian, kontinenteko industria siderurgikoen jarduerak kalitatezko burdina-mineralaren eskaera handitu zuela, eta eskaera handitze horrek Bizkaiko meatze-eremua erakargarri bihurtu zuen kapital, enpresa buru, teknikari eta, batez ere, langile multzo handiarentzat, azken horiek lan baldintza onak, eta bai bizi-baldintza hobek ere aurkituko zituztelakoan etorriak.

Jakina denez, meatze-arrotik oso gertu burdinaren eraldaketarekin estu loturiko beste jarduna motak sortu ziren, siderurgia astuna eta metalurgia, Nerbioi itsasadarrean zehar hedatu eta, espazio berri bat egituratu zutenak. Espazio horretan, Euskadiren industrializazio-eta gizarte modernizazio-prozesua finkatzen joan zen. Prozesu horren oinarriak, meatzaritza, industria siderometalurgikoa eta giza kapitalaren garapena inmigratioari lotuta izan ziren.

Horren adierazle dira meatze eremuak gainerako eremu industrialetik bereizgarriak ziren portaera demografikoak jasan izan zituela, biztanleriaren hazkunde handia urte gutxitan oso kontzentratua, alegia. 1877-1887 urte bitartean hazkunde tasarik handienak lortu ziren aztertutako udalerrietan. Hamarkada horretatik aurrera hazkunde nabarmen gutxitu eta moderatu egin zen, horrela mantenduz 1920-1930 urteetara arte. Azken hamarkada horretan industrializazioa finkatu zen, eta bai gizarte industrial kapitalista berriaren oinarriak ere.

Esan bezala XIX. mendeko azken hamarkadetan, aldaketa demografiko, sozial, ekonomiko azkarrak bezain sakonak gertatu ziren. Testuinguru horretan egileek nahi izan dute emakumeek zein umeez izan zuten presentzia eta partaidetza ezagutu. Presentzia eta partaidetza horien nolokotasuna argitzeko asmotan meatze-jarduerari esleitutako ezaugarriek, hala nola, indarraren beharra, arriskua, etab. laneko maskulinizazioa ekarri zutela dioskue ikerlariak, eta horrek, halaber, meatze-eremuak sortutako lanpostu berriak betetzera erakarritako lan-indarra gizonetzkoena izatea zekarren. Horrela, etorkinen artean emakume baina gizon askoz gehiago zeuden, batik bat, mineralaren erauzketan jarduten ziren lekuetan, goi auzoetan San Salvador del Valle-n bezala.

Emakumeek gizonen migrazio-korronte berdinetan parte hartu bazuten ere, migrazio tipologia desberdin bati erantzunez etorri ziren. Familia-migrazioen kide bezala heldu ziren meatze-eremura, ezkontide edo alaba gisa. Senar-emazte gazteak seme-alaba txikiekin osatutako inmigrazioa da, aukera berri bila etorriak. Bakarrik lekuz aldatu zuten gainerako emakumeek senideen etxeetan instalatzen ziren. Gainera, emakumeak behe-auzoetako udalerrietara kopuru handiagotan heldu ziren, mineralaren erauzketan barik horrekin zerikusia zeukaten beste jardueretan aritzeko.

Goian azaldutakoa meatze-eremuko udalerrien erroldetako datuetan oinarriturik dago, eta, duda izpirik ez dago emakumeen presentzia egiaztatzeko aipatu meatze-udalerrietan. Datu iturri horiek esaten digute ere nolakoa izan zen emakume haien partaidetza egitura sozioekonomiko berri hartan, baina partaidetzaz ari garelarik datu estatistikoek ez digute den-dena argitzen.

Egileen esanetan aldaketa ekonomiko sakonak sortutako aldaketek, meatzeen ustiapen masiboak, nekazal jarduera ia desagertzeak, lan-merkatuan soldatapeko lanaren nagusitasunak eta horren maskulinizazioak, ekarri zuten emakumeen jardun ekonomikoa iturri estatistikotik desagertzea. Emakumeen jardun ekonomiko hori etxeko eremu pribatuan kokatua izan zen, ideologikoki gutxienez; hots, generoaren arabera lan banaketa ezarri zen zeinak gizonen ogi irabazlearen rola eta emakumeen etxeko andrearena esleitu baitzitzairen. Hortaz, aipatu iturri estatistikoek, genero lan banaketak sesgatutik, emakumeen soilik onartu zituzkien zeregin bi: etxekoandreak eta neskameak.

Hori dela eta, egileen aburuz, une historiko hartan emakumeek burututako lan-jardunen berri eman ahal izateko erroldak iturri defizitarioak suertatzen dira. Izan ere, 1880-1890 urteetako erroldaren arabera emakumeen %40,2 sailkatu barik agertzen da, eta sailkatuak agertzen direnen artean %41,1 etxekoandre gisa ageri dira. Nabarmetzen diren lanbideen artean, lehen esan bezala, etxekoandreak eta neskameak aurkitzen dira, gainerakoak salbuespenak baina ez dira. Egoera hori hurrengo hamarkadetan mantenduko da.

Emakumeen jarduera ekonomikoa iturri estatistikotik desagertzeak ez du esan nahi emakume haiek parte hartu ez zutenik modu anitzetan arautugabeko edo ofiziala ez zen lan-merkatu batean, informazio hori datu kuantitatiboetatik eskuratzea erraza ez bada ere.

Datu ofizialek desitxuratu zuten garai hartako errealitatea, aldaketa ekonomiko sakonak ekarritako meatze ustiapen masibo hartan gizonetzkoek lan truke irabazitako soldadak ez baitziren nahikoak gutxienerako bizi-baldintzak lortu ahal izateko. Egoera horretan aurkitu ziren familia askotako emakumeak, gutxienerako beharrezko beharrezko erantzun guran, ekonomia ezkutuak, kualifikazio gabeko lanetan aritu ziren, iturri kualitatibo desberdinek erakusten duten legez. Emakumeek familia-estrategia berriak burutu behar izan zituzten, lan anitzei loturik. Liburuxka erdialdean dauden argazkietan zein erabilitako zenbait dokumentuetan emakumeen lan jardun desberdinen berri ematen da nekazaritzan zein harrobietan, karga-lanetan, "chirita"ren sailkapenean eta mineral garbiketean.

Europako gainerako herrialde hiritar eta industrialetan gertatzen zen bezala, XIX. mendeko azken bi hamarkadetakoa soldatapeko emakumeen presentzia orokortutako kualifikaziogabeko eta txarren ordaindutako jarduerekin lotzen dute egileek; bereziki, Nerbioi ibaiaren itsasadarrean aritutako emakumeen presentzia, zamaketariak eta sirgerak baitziren. Emakumeak mehatzetan egindako lana oso gutxitan izan zen iraunkorra, eta ez zen behin betiko lanbide bihurtu ere. Lan hori emakumeen familia baldintzen eta beharrezan arabe-rakoa izaten zen.

Iturri estatistikoek ere antzeko zerbait egiaztatzen dute. Datu horien arabera, emakumeen edo haien familiaren bizitza zikloak eragiten zuen ere lan-merkatu arautuan edo ofizialean izaten zuten partaidetzan. Meatzetan lan egin zuten emakumeak ezkongabeak edo alargunak ziren, aldiz, ezkonduak merkatu horretatik at zeuden. Sasoi berean, XIX. mendaren azken bi hamarkadatan, bertako emakumeen jarduera-tasa etorkinena baino altuagoa zen, oraindik bertakoek nekazal sektorean lana baitzuten.

XX. mendea aurrera joan ahala, biztanleen errolden datuek emakumeen jardueratasak jasandako jeitsiera handia erakusten dute, eta bai emakume ezkonduen kanporaketa lan-merkatutik ere. Halaber, emakume aktiboen artean zerbitzari moduan lan egiten dutenak nabarmentzen dira. Jarduera tasen beharakada bertako emakume eta etorkinen artean antzekoa da.

Ikerlariak 1920-30 urteetako emakumeen jarduera-tasen jeitsiera horiek garaiko ideologiarekin eta horren baitako lan banaketa sexualarekin lotzen dute. Hala ere, haien ustez, eredu ideologiko hori errealtatetik oso urrun zegoen, eta beste eremu batzuetan bezala emakumeek paper aktiboa izan zuten zeregin desberdinak burutuz, meatzetan modu zuzenean batzuk eta beste batzuk meatze-sistemarekin zerikusia zeukaten beste lanetan. Emakumeek era nabarmenean lagundu zuten Bizkaiko meatzaritzan ezarri zen sistema berriaren egonkortasuna bermatzen eta bai norbanakoen ongizate hobetzen ere.

Esan bezala, meatze-ustiapenetatik kanpo emakumeek garatutako jarduera asko izan ziren. Horieta bat etxean apopiloak artatzea izan zen.

Meatze ustiapen berrietara etorri berriak ziren etorkinek ostatua hautatu zuten finkapen estrategia gisa. Etorkin horiek meatzetako lan eskaintza handiak erakarrira ehunaka iristen ziren, eta hasiera batean hilabete batzuetarako baino ez ziren etortzen. Haien jatorrizko lekuetako nekazal jardueren atseden garaiak aprobetxatzen zituzten meate eremuetara etortzeko, gehien bat gizonak, ezkongabeak, gazteak, 15-30 urte bitartekoak izaten ziren. Gainera, bakarrik leku aldizetan eta aldi baterako etortzean meate udalerrietan zegoen etxebizitzaren azpiegituraren gabeziari aurre egin behar izaten zioten. Meate eremuko udalerriek, urte gutxitan hazkunde ikaragarria bizi eta ostean, ez zuten ostatu eskaintza nahikorik, eta etorkinak beste familia batzuen etxeetan zein konpainiak ezarritako behin-behineko barrakoietan geratu behar izaten ziren. Barrakoi horien gehiegizko prezioek eta bizigarritasun-baldintza txarrek lan gatazka handia sorrarazten zuten. Hori dela eta, azkenik, aterpetxeek eta ostatuek, langileburuen eta kontratisten eskuetan zeudenak, barrakoi horiek ordezkatu zituzten; langile familiek ere pisuak alokatzen hasi ziren apopilotza orokortuz. Etorkinentzat ostatua meate-eremuan finkapenerako konponbide azkar eta behin behinekoa izan zen: ordainketa ez oso garesti baten truke ohea, janaria, eta garbiketa ziurtaturik zeukaten.

Apopilo edo ostalarietako etxe partekatua meate-eremuko eguneroko bizitzaren zati izatera pasatu zen.

Garai hartako erroldetan etxeoandre bezala agertzen diren emakumeak izan ziren etxe haietan apopiloak artatzen zituztenak. Barrakoietan eta ondorengo aterpetxeetan emakumeak izan ziren ere meatzariak artatzeko arduradunak. Etxean apopiloak izateko estrategia familiar eta emakumeen bizitza-zikloaren lehen urteetan ezartzen da funtsean. Emakumeek apopiloerik zerbitzu asko eskaintzen zizkieten, hala nola, arropen garbiketa eta errepasoa, janaria eta gelaren garbiketa. Etxekoandrea jarduerak eta bereziki euren seme-alaben hazkuntza apopiloak artatzearekin uztartu behar izan zituzten. Emakumeek burututako lan honek meatzarien bizi baldintzak hobetu zituen eta konpainiek soldata baxuak mantendu ahal izan zuten. Bestalde, apopiloak zeukaten familiak bere diru-sarrerak handitu zituen emaku-

mea etxearen unitatea utzi gabe. Horrela, emakumeen ardurapeko etxean ezkututako jarduera honekin familiaburuaren soldatan oinarrituriko familiako diru sarrera osatzen zen.

Hortaz, garaiko lan banaketa sexualari esker belaunaldietan zehar eskulan merke eta aldi baterakoarekin meatze-ustiapen masiboa ahalbidetu zuen sistema mantendu zen.

Baina, jarduera ekonomikoaz gain garai hartako bizitza soziala ere aztertu izan dute egileek; emakumeen presentzia eta partaidetzaren aztarna bila aritu dira bai, baina kasu honetan bilaketa lana ez da hain arrakastatsua suertatu. Izan ere, langile mugimenduari zer ikusia zeukaten erakunde sozialisten eta langile jardueren ingurunean aurkitu badiutuzte ere, egileek aitortzen dute emakumeek ez zutela presentzia zuzenik izan. Dolores Ibarrruri bezalako pertsona ospetsuak salbuespena lirateke araua baino. Jakiteko asko falta zaigu diote; eta bide horretan sakontzen segitu ahal izateko bide batzuk iradokitzen dituzte. Horietako bat, esaterako, garaiko iritzi burgesak emakumeen autonomia pertsonalaren gaitasunak baldintzatzeko erabili zituen eragin eta agente multzoa: maisuak, apaizak eta osagileak, euren jakituria erabili zutenek langileriareari eta, bereziki emakumeei bertutea, aurrezkoa, garbiketa eta leialtasuna bezalako balioak igortzeko portaera pribatueta zein publikoetan erabil zituzten.

Umeen lanaren gainean ere testigantzak aurkitu dituzte. Hamar urteko gutxieneko adina ezarri zuen eta lanaldia adinaren arabera mailaka mugatu zuen 1873ko uztailaren 24ko Benot Legea ez zen inoiz ezarri, hortaz. Umeak oso gaztetik meatzaritzan eskulan bezala erabiltzen ziren. Haien bizitza gogorra zen meatzetan. Haurren heriotza-tasak oso altuak ziren, meatze-biztanleriaren bizitza baldintza zorigaitzoen, inguru osasun-gaitzaren, titia kentze goiztiarraren eta batez ere klimatologiaren ondorioz. Gaixotasun infekziosoen, arnas eta digestio-aparatuarenak batez ere, eta karentziales ume asko hil zituzten, XIX. mendearen amaiera bereziki; elikagai, higiene eta osasun baldintza orokorrak hobetu zirelarik, haurren heriotza-tasen jeitsieran aurrerapen garrantzitsuak lortu ziren.

Egileek deskribatutako emakumeen partaidetza anitza meatze eremuko egitura sozio-ekonomikoan irakurri eta ostean, dudarik ez dago garaiko kapitalismoari onuragarri suertatu zitzaiola aipatu partaidetza, ikerketa historikoak duela gutxi arte onartu ez badu ere. Ildo horretan, Rocio Garciak eta Rafael Ruzafak plazaratutako lanak zera adierazten du: gure inguru akademikoan burutzen den ikerketa historiografikoa, azkenean, ikerketa feministak irekitako bide berrietan ere ari dela.

Argitaratutako lana apala da; baina horrek ez du esan nahi ekarri esanguratsurik egiten ez duenik. Idazlan honetan emakumeak historiaren subjektu gisa ikusgarri egiteko ahalagin zurruna aurkitzen dugu, goian aipatu bidean. Apala da, batik bat maila deskriptibo hutsean gelditzen baita sakondu eta azaldu gabe deskribatzen diren gertaeren zioak, arrazoi horiek modu esplizituan ageri diren arren. Halarik ere, seguru gaude etorriko direla beste lan batzuek behatutako hutsuneak zentzuz eta esanguraz beteko dituztenak. Egileek beraiek onartzen duten moduan: egiteko asko geratzen baita.

Dena dela, genero ikuskera tertatu nahi duen edozein gizarte ikerlariarentzat irakurketa interesgarria eskaini digute Rocio Garciak eta Rafael Ruzafak, euskarazko bertsoiak gabezi nabarmenak baditu ere.

Mila Amurrio Velez